

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, abenduaren 1ekoa. Onestea COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko zerga neurriak 2021erako

Martxoan alarma egoera ezarri zenetik, Arabako Foru Aldundiak hainbat zerga neurri hartu ditu COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzen saiatzeko.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen bidez, zerga neurri gehiago hartzen dira xede berbererako.

Horiek horrela, ezohiko eta aldi baterako neurriak onetsi dira, honako hauei loturikoak: jarduera ekonomiko jakin batzuen etekin garbia zehaztea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zerga horren autolikidazioa egiteko betebeharrak zehazten duten muga kuantitatiboak eta errenta salbuetsiak. Azken horien barruan sartzen dira, besteak beste, etxebizitzaren alokairurako laguntza jakin batzuk eta seme-alabei, mendeko pertsonari edo gaixoei lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko laguntzak.

Horrez gain, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, 2021era luzatuko dira aurrez aldi baterako onetsi ziren eta 2020ra mugatzen ziren neurri batzuk, zenbait ñabardurarekin kasu batzuetan. Besteak beste, hauei loturikoak: ohiko etxebizitza berritzeko obregatikiko kenkaria eta ibilgailu elektrikoaren kargaguneak instalatzeko kenkaria.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuari dagokionez, kendu egin da baliogabetzeke zegoen azken ordainketa, 2020ari dagokiona.

Sozietateen gaineko zergan ere 2021era luzatuko dira bere garaian beste indarraldi baterako onetsi ziren zenbait xedapen. Esate baterako, arlo hauei loturikoak: ibilgetu material berriko elementu jakin batzuen aparteko amortizazio bizkortua, enplegua sortzeatik kenkaria eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, betekizun jakin batzuk betetzen dituzten mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertainetan inbertitzeatik aparteko kenkaria.

Bestalde, eta zergak ordaintzea errazagoa izan dadin, ezohiko zatikatzea arautu da jarduera ekonomikoak egiten dituzten eta zerga betebeharrak egunean dituzten zergadunentzat, berandutze interesik gabea eta bermerik aurkezteko betebeharrak ez dakarrena.

Halaber, zerga tratamendu jakin batzuk malgutzeko neurriak hartu dira; indarreko legedian ezarrita dauden epeak luzatu dira, zeinak betetzeak berriazko araubideen eraginkortasuna eta kuotaren kenkariak baitakartza.

Bestalde, 2021eko apirilaren 30era arte eusten zaio balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko zeroko tasaren aplikatzeari COVID-19ri aurre egiteko material sanitarioaren entregetan, inportazioetan eta Europar Batasuneko barne erosketetan, baldin eta hartzaileak zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak, edo gizarte izaerako erakunde pribatuak badira.

Tasa hori 2020ko urriaren 31ra arte egon zen araututa urriaren 13ko 13/2020 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuan, zeinaren bidez balio erantsiaren gaineko zergan doikuntzak egiteko neurriak hartu ziren, COVID-19aren ondorioz. Horrela, bada, indarraldia luzatzen da, osasun sistemak pandemiaren bigarren kontrol fasean, normaltasun berriaren aldirian, erantzun ahal izatea bermatzeko.

Gainera, ehuneko 21etik ehuneko 4ra jaisten da, aldi baterako, erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entzegei, inportazioei eta Europar Batasuneko barne erosketei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, betiere hartzaileak lehen aipatutakoak ez badira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkieten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

I. titulua. Ezohiko eta aldi baterako neurriak

I. kapitulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

1. artikulua. Autolikidazioa egin beharra

Bat. 2020ko eta 2021eko zergaldietarako soilik, honela geratzen da idatzita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 102. artikulua 2. apartatua:

“2. Hala ere, errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autoliki-daziorik egin beharko:

a) Lanaren etekin gordinak; urtean 14.000 euro gehienez, banakako zerga ordainketan. Baterako zerga ordainketan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Lanaren etekin gordinak; 14.000 eta 20.000 euro bitartean urtean banakako zerga ordainketan, 3. apartatuan aipatzen diren egoeretako batean sartuta daudenentzat izan ezik. Baterako zerga ordainketan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsiak barne (bi kasuetan), urteko guztirako zenbatekoa 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partizipazioen eskualdaketen edo itzulketen ondorio diren ondarezko irabaziei, baldin eta, arauz ezarritakoaren arabera, atxikipen oinarria ez bada zehaztu behar zerga oinarri guztiaren zenbatekoarengatik.”

Bi. 2020ko eta 2021eko zergaldietarako soilik, berridatzi egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 102. artikulua 3. apartatuko a) eta b) letrak, eta aurrerantzean honela egongo dira idatzita:

“a) Ordaintzaile baten baino gehiagoren lan etekinak jaso badituzte.

Hala ere, 20.000 euro arteko laneko etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitortpena aurkeztu beharrik izango, baldin eta bigarren ordaintzailetik eta gainerako ordaintzailetatik jasotako zenbatekoen batura, zenbateko ordenaren arabera, guztira urtean 2.000 euro baino handiagoa ez bada.

b) Ordaintzaile bakarraren lan etekinak jaso eta ekitaldian lan kontratu bat baino gehiago sinatu badute (lanekoa zein administratiboa), edo indarrean egon dena luzatu badute.”

2. artikulua. Salbuetsitako errentak

Bat. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarraian zerrendatzen diren laguntzak salbuetsita daude pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik:

a) Etxebizitza librearen alokairurako laguntzak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren 2020ko apirilaren 30eko Aginduak xedatutakoarekin bat etorritik emanak

(agindu horren bidez, COVID-19 birusak eragindako osasun krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautu ziren, eta horietarako deialdia egin zen).

b) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko martxoaren 31ko Aginduak xedatutakoari jarraituz emandako laguntzak (agindu horren bidez, alokairu erregimeneko etxebizitza babestuen arloan COVID-19 birusaren inpaktu ekonomikoari erantzuna emateko hartu beharreko neurriak arautu ziren).

c) Familientzako laguntzak, zeinak baitira seme-alabei (duten adinagatik), mendeko pertsoneri edo COVID-19ak erasan dien gaixoei (kutsatuak edo isolatuak) lagundu, arreta eman eta haiek zaintzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduan ezarritakoari jarraituz emanak (agindu horren bidez, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko familientzako laguntzen arloko neurri zehatzak arautu ziren).

d) Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan jasotako dirulaguntza programaren onuradun diren pertsoneri emandako laguntzak (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo, sukaldaritza eta ostalaritza sektoreetako establezimenduetan kontsumoa sustatzeko "Euskadi Turismo Bona" programa arautu eta 2020rako deialdia egin zen); eta beste laguntza batzuk, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien, EAEko hiru hiriburu eta udalen eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen arteko Jarduteko Protokolo Orokorren barruan ematen direnak.

e) Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan jasotako dirulaguntza programaren onuradun diren pertsoneri emandako laguntzak (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko "Euskadi Bono-Denda" programa arautu eta deialdia egin zen); eta beste laguntza batzuk, Eusko Jaurlaritzak, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartek eta Bilbo eta Gasteizko udalek sinatutako erakunde arteko akordioaren barruan ematen direnak.

Bi. 2020ko eta 2021eko zergaldietan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira COVID-19ak eragindako osasun krisia dela eta agintari eskudunek hartutako neurrien ondorioz jarduera eten edo geratu behar izan duten edo jardueran eragin larria jasan duten norberaren konturako langileei edo langile autonomoei administrazio publikoek emandako dirulaguntzei edo aparteko laguntzei dagozkien errentak.

Bereziki, salbuetsita egongo dira xedapen hauen bidez emandakoak:

a) 2020ko azaroaren 13ko Agindua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez EAEko ostalaritza sektoreko laguntzak arautzen baitira eta deialdia egiten baita.

b) 2020ko apirilaren 8ko Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko deklaraturako alarma egoera dela eta.

Apartatu honetan araututako salbuespena ez zaie aplikatuko norberaren konturako langileek edo langile autonomoek COVID-19ak eragindako osasun krisiaren esparruan jasotako prestazio publiko arrunt zein apartekoei.

3. artikulua. COVID-19aren pandemiaren ondorioz gizarte aurreikuspen osagarriko eskubi-deak erabiltzea

Finantza Politiken zuzendariaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenean ezarritakoaren arabera (ebazpen horren bidez, baimentzen da COVID-19aren inpaktua dela eta ezinbestezko enplegu erregulazioko espediente batean edo aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batean dauden borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkideek langabezia prestazioa kobratu ahal izatea), langabezia prestazioa 2020. eta 2021. urteetan kobratzen bada,

prestazio horiei dagokien lanaren etekin osoa kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoari ehuneko 75eko integrazio ehunekoa aplikatuko zaio. Horrek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasietako zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Artikulu honetan aipatzen den ehuneko 75eko portzentajea aplikatzen zaien etekinen zenbatekoa kontuan hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 19. artikulua 2. apartatuko azken paragrafoan ezarritako muga zenbatzeko, eta integrazio portzentaje hori kontuan hartu beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 83. artikuluko bigarren apartatuan aurreikusitako baldintzetan.

4. artikulua. Etekin garbia ardogileen jarduerari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jarduerari aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan

2021eko zergaldian, ehuneko 40koa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 33. artikulua 1. apartatuaren c) letran aipatzen den ehunekoa.

5. artikulua. Ohiko etxebizitza berritzeko obregatikoko kenkaria

Bat. 2021eko zergaldian, zergadunek beren jabetzako ohiko etxebizitza berritzeko obrak egiteagatik ordaindutako zenbatekoen ehuneko 10 kendu ahal izango dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osotik, lan horiek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasten badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria, indarraldi berarekin eta obren hasiera egun berarekin, beren jabetza den ohiko etxebizitza berritzatzeko lanak egiteagatik ordaindutako diru kopuruen ehuneko 15 izango da, lan horien helburua A edo B klaseko energia sailkapena lortzeko energia birgaitzea baldin bada.

Bi. Aurreko Bat apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Etxebizitzak gutxienez 10 urte izan behar ditu aipatutako obrak hasten diren egunean.

b) Egin beharreko obrek udalaren obra lizentzia behar dute, eta zergadunak lizentzia hori eduki behar du.

c) Obra gauzatzeko aurrekontua, gutxienez ere, 3.000 euro izan behar da.

Hiru. Kenkari hau aplikatzeari dagokionez, etxebizitzak ohiko izaera duela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 87. artikulua 8. apartatuan xedatutakoa betetzen denean.

Lau. Aurreko Bat apartatuan adierazi den kenkariaren oinarriak 15.000 euro izango du gehieneko muga. Oinarri hori ohiko etxebizitzan egindako berritzatze lanak gauzatzegatik ordaindutako diru kopuruen arabera zehaztuko da. Zergadunak frogatu beharko du obra horiek gauzatu izana, dagozkien fakturak aurkeztuz, eta faktura horiek bete beharko dituzte haiei buruzko araudian ezarritako baldintzak.

Bost. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horregatik jasotzen dituen eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa.

Obra gauzatzegatik ordaindutako diru kopuruek gainditzen badute aurreko Lau apartatuan adierazi den gehieneko kenkari oinarria, jaso diren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzek proportzioz murriztuko dute kenkariaren oinarria.

Sei. Artikulu honetako Bat apartatuan adierazi diren lanak 2022ko martxoaren 31rako bukatuta egon behar dira, eta egun horretara arte egindako ordainketak aurreko Lau apartatuan adierazi den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

Zazpi. Ohiko etxebizitza berean egindako obrei dagokienez, kenkari hori aplikatzea bateraezina izango da ekainaren 23ko 8/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak 2. artikuluan ezarritako kenkariarekin (zerga premiazko araugintzako dekretu horren bidez, onespena eman zitzaien Zergen Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriei).

Ondorioz, aurreko paragrafoko kenkaria aplikatzeak eragotziko du artikulua honetan araututako kenkaria aplikatzea etxebizitza bera berritzeko obrei dagokienez.

Apartatu honetan ezarritakotik salbuetsita egongo da, baldin eta obrak egingo diren etxebizitza beste zergapeko batzuek erosi badute eta haientzat ere ohiko etxebizitza bada.

6. artikulua. Ibilgailu elektrikoaren kargaguneak instalatzeagatik kenkaria

Bat. 2021eko zergaldirako, zergadunek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako kuota osotik kendu ahal izango dute beren jabetza den finkan edo komunitate garajearen beren jabetzako eta erabilera partikularreko ibilgailu elektrikoak kargatzeko tokiak instalatzeagatik ordaindutako diru kopuruen ehuneko 15. Instalazio horiek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasi behar dira.

Bi. Aurreko Bat apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, indarrean dagoen legerian agindutako baimenak eduki behar dira.

Hiru. Aurreko Bat apartatuan adierazi den kenkariaren oinarriak 15.000 euro izango du gehieneko muga. Horretarako, zergadunak frogatu behar dituzte ordaindutako diru kopuruak, dagokien faktura aurkeztuz, eta faktura horrek bete behar dituzte hari buruzko araudian ezarritako baldintzak.

Lau. Kenkariaren oinarria osatzen duten diru kopuruetatik kendu behar da zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa.

Ordaindutako diru kopuruek gainditzen badute aurreko Hiru apartatuan adierazi den gehieneko kenkari oinarria, jaso diren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntzek proportzioz murriztuko dute kenkariaren oinarria.

Bost. Artikulu honetako Bat apartatuan adierazi diren instalazioak bukatuta egon behar dira 2022ko martxoaren 31rako, eta egun horretara arte egindako ordainketak aurreko Hiru apartatuan adierazi den kenkariaren oinarrian sartuko dira.

Sei. Finka edo komunitate garaje berean egindako instalazioei dagokienez, kenkari hori aplikatzea bateraezina izango da ekainaren 23ko 8/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak 5. artikuluan ezarritako kenkariarekin (zerga premiazko araugintzako dekretu horren bidez, onespena eman zitzaien Zergen Foru Arau Orokorreko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergako eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako doikuntza neurriei).

Ondorioz, aurreko paragrafoko kenkaria aplikatzeak eragotziko du artikulua honetan araututako kenkaria aplikatzea finka edo komunitate garaje berean egindako instalazioei dagokienez.

7. artikulua. Aparteko kenkaria mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertainetan inbertitzeagatik

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 12. artikuluan ezarri den mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik aparteko kenkaria aplikatu ahal izango dute 2021eko zergaldiari dagokion autoliquidazioan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 90. artikuluan jasotako kenkariaren ordean, honako berezitasun hauekin:

a) Kenkari hau aplikatzeko, erakunde berean zergadunaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza, bere ezkontideak edo izatezko bikotekideak (Izatezko Bikoteak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera) edo ahaidetasun lotura bidez (zuzena zein albokoa, odolkidetasunezkoa edo kidetasunezkoa, bigarren gradura artekoa, hura barne) zergadunari lotutako beste edozein pertsonak duenarekin batera, ezingo da izan erakundearen kapital sozialaren edo bere boto eskubideen ehuneko 25 baino handiagoa, partaidetza hori izaten den urte naturaletako egun bakar batean ere.

b) Ken daitekeen gehieneko kopurua ezin daiteke izan zergadunari dagokion likidazio oinarriaren ehuneko 15 baino gehiago.

c) Ezarritako mugak gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, aipatu diren mugak errespetatuz.

d) Kenkari hau aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 12. artikuluko Bederatzi apartatuan xedatutakoa.

e) Kenkari hau aplikatu ahal izateko, autolikidazioa aurkeztu behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bi. Entitateen akzioen edo partaidetzen eskualdaketari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 42. artikuluko g) letran xedatutakoa aplikatuko zaio, baldin eta zergadunak horiek eskuratzeko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 12. artikuluan mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik ezarritako aparteko kenkaria aplikatu badu aurreko apartatuan jasotako berezitasunekin.

Hiru. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan Hamabost apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie entitateetako akzio eta partaidetzei, baldin eta zergadunak Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 12. artikuluan mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik ezartzen den aparteko kenkaria aplikatu badie, aurreko Bat apartatuan jasotako berezitasunekin.

8. artikulua. Ordainketa zatikatuak

1. Jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean 2020ko laugarren hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatua egitera edo, kasuan kasu, autolikidatu eta ordaintzera.

2. Baldin ordainketa zatikatua sei hilerik behingoa bada, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean 2020ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatua egitera edo, kasuan kasu, autolikidatu eta ordaintzera.

3. Baldin ordainketa zatikatua bi hilez behingoa bada, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean 2020ko bosgarren eta seigarren bihilekoei dagokien ordainketa zatikatua egitera edo, kasuan kasu, autolikidatu eta ordaintzera.

II. kapitulua: Sozietateen gaineko zerga

9. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 18. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie 2021ean berriz negoziatzen diren edo sinatzen diren finantza errentamenduko kontratuei, nahiz eta kontratu horiek ez bete 18. artikuluan 1. apartatuko f) letran aurreikusitako baldintza.

10. artikulua. Aparteko amortizazio bizkortua

Ibilgetu materialeko elementu berriak, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 31. artikulua 3. apartatuaren a) letran eta d) letraren lehen eta bigarren paragrafoetan adierazitako arauak aplikatzen zaizkien eraikinak eta garraiobideak izan ezik, 2021eko urtarrilaren 1a eta 2021eko abenduaren 31 bitartean eskuratzen badira, martxan jartzen direnetik aurrera amortizatu ahal izango dira, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan jasotako taulan aurreikusitako gehieneko amortizazio koefizientea bider 1,5 eginda ateratzen den koefizientearen arabera, barnean hartuta enpresak berak eraikitako ibilgetu materialaren elementuak eta 2021eko urtarrilaren 1a eta 2021eko abenduaren 31 bitartean obra egiteko izenpetutako kontratu baten bidez enkargatutakoak, betiere eskuragarri jartzen badira kontratua sinatu den zergaldia amaitu ondorengo hamabi hilabeteen barruan.

11. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkaria

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan aipatzen den enplegua sortzeagatiko kenkaria aplikatzearen ondorioetarako, honako berezitasun hauek aplikatuko dira 2021ean egiten diren lan kontratazio mugagabeei dagokienez:

a) 66. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoan aipatzen den kontratatutako pertsona bakoitzeko aplikatu beharreko kenkariaren gehieneko muga urteko soldata gordinaren ehuneko 25 izango da, 7.500 euroko mugarekin.

b) Kontratatutako pertsona 66. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoan aipatzen diren lan merkatuan sartzeko zailtasun berezia duten kolektiboetako batekoa bada, zenbateko kengarria aurreko a) letran adierazitakoaren arabera kengarri denaren bikoitza izango da.

12. artikulua. Aparteko kenkaria mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertainetan inbertitzeagatik

Bat. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat hartzen diren enpresetako akzioak edo partaidetzak harpidetzean edo eskuratzean 2021ean ordaindutako zenbatekoen ehuneko 10 kendu ahal izango dute zergaren kuota likidotik.

Kenkari hori lortzeko, eskuratutako edo harpidetutako akzioek edo partaidetzek zergadunaren ondarean egon beharko dute bost urte baino luzaroagoan.

Kenkari oinarria gehienez 100.000 euro izango da, eta eskuratutako edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Bi. Aurreko apartatuan ezarritako kenkaria 2021eko ekitaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 15ekoa izango da, enpresa berrien eta sortu berrien akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko bada eta baldin eta horiek mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat hartzen badira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, betiere, hurrengo 5. apartatuan xedatutakoa betetzen bada. Kapitalari egindako aldi baterako ekarpenaz gain, parte hartzen duen erakundearen garapenerako egokiak diren enpresa edo lanbide ezagutzak eman ahal izango dira, zergadunaren eta erakundearen arteko inbertsio akordioan ezartzen diren baldintzetan.

Kenkari hori aplikatzeko, enpresak jarduera ekonomiko berria gauzatzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko ditu. Ez da baldintza hori betetzat joko honako eragiketa hauen ondorioz sortutako sozietateak badira: bat egitea, zatiketa, aktiboek ekarpena, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, jarduera adarren ekarpenak, interes ekonomikoko taldeak egitea, aldi baterako enpresa elkarteak eta jarduera ekonomiko berria benetan sortzea ez dakarten bestelako eragiketak.

Erakunde batean akzioak edo partaidetzak harpidetzeak edo eskuratzeak ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta lehendik beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera erakunde horren bidez gauzatzen bada.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, kenkari oinarria gehienez 150.000 euro izango da, eta harpidetutako edo eskuratutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Hiru. Aurreko apartatuetan ezarritako kenkaria 2021eko ekitaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 20 izango da, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo enpresa ertaintzat hartzen diren enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzen edo eskuratzen badira, eta hurrengo 5. apartatuan ezarritakoa betetzen bada. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira enpresa berritzailetzat: Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan xedatutakoa betetzen dutenak partaidetza hartzen den ekitaldian. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, kenkari oinarria gehienez 200.000 euro izango da, eta eskuratutako edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioak osatuko du.

Lau. Aurreko hiru apartatuetan ezarritako kenkariak aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Sozietate anonimoa, erantzukizun mugatuko sozietatea, kooperatiba, lan sozietate anonimoa edo lan erantzukizun mugatuko sozietatea izan behar dira kenkari hau aplikatuko zaien eta eskuratzen edo harpidetzen diren akzioen edo partaidetzen erakundeak, uztailearen 2ko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean eta Sozietate Laboral eta Partaidetuen urriaren 14ko 44/2015 Legean aurreikusitako moduan, eta, era berean, ezingo dira inongo merkatu antolatutan negoziatzeko onartuta egon. Akzioa edo partaidetza edukitzen den urte guztietan bete beharko da baldintza hori.

b) Zergadunaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza ezin izango da izan, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluen 3. apartatuan ezarritako baldintzetan harekin lotuta dagoen edozein pertsonak edo erakundek duenarekin batera, erakundearen kapital sozialaren edo bere boto eskubideen ehuneko 25 baino handiagoa, partaidetza hori izaten den urte naturaletako egun bakar batean ere.

Bost. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako kenkariak aplikatze aldera, zergadunak entitatea eratzen den unean bertan eskuratu beharko ditu akzioak edo partaidetzak, kapital handitzearen bidez, edo, bestela, hura eratu ondoko bost urteetan, bigarren mailako merkatuan, eta partaidetza edo akzio horiek ondarean eduki beharko ditu bost urtean baino luzaragoan.

Hirugarren apartatuan aipatzen den kasuan, akzioak edo partaidetzak eraketa horren ondorengo zazpi urteko epean harpidetu edo eskuratu beharko dira, baina epe hori ez da eskatuko arriskuko finantzaketaren hasierako inbertsio bat behar duten erakundeen kasuan, baldin eta, merkatu geografiko edo produktu merkatu berri batean sartzeko egindako negozio plan batean oinarrituta, inbertsioa aurreko bost urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50 baino handiagoa bada.

Sei. Artikulu honetan araututako kenkaria ez zaie aplikatuko honako kasu hauetakoren batean dauden erakundeetan egindako inbertsioei:

a) Berreskuratze agindu baten mende dauden enpresak, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki duelako laguntza bat legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezina dela.

b) Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

c) Aurreko Bat, Bi eta Hiru apartatuetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak jaulkitzearen kausaz Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluko 9. apartatuan aipatzen den arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gainditzen duten enpresak. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoría batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Zazpi. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa izango da harpidetu edo eskuratu diren akzioak edo partaidetzak dituen erakundeak emandako ziurtagiria lortzea. Ziurtagiri horretan adierazi behar da eskuraketa gertatu zen zergaldian betetzen zirela entitateak kenkaria jasotzeko eskubidea izateko eskatzen ziren baldintzak.

Horrez gain, Hiru apartatuan araututako kasuan, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu erakundeak, aditu independenteek baldintza horiek betetzen direla egiaztatuta. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoría batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Zortzi. Bat apartatutik Zazpi apartatura bitartean ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak kenkariaren ondoriozko kuota sartu behar du ez-betetzea gertatu den zergaldiari dagokion autolikidazioan, kasuan kasuko berandutze interesekin batera.

Bederatzi. Kenkari hau aplikatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 59. eta 67. artikuluetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan, eta, ondorio horietarako, foru arau horren V. tituluko III. kapituluan aurreikusitako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

Zehazki, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 67.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, funts berberak ezingo diote kenkarirako eskubiderik eman pertsona edo erakunde bati baino gehiagori.

Hamar. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatu ahal izateko, autolikidazioa aurkeztu behar da, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan xedatzen den moduan eta hartan adierazitako ondorioekin.

Hamaika. Apartatu honetan araututako kenkaria aplikatu ahal izango dute, halaber, establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ekainaren 18ko 21/2014 Foru Araua aplikatzen bazaie.

Hamabi. Baldin zergadunaren ekitaldi ekonomikoa ez badator bat urte naturalarekin eta 2020. eta 2021. urteetan kenkari honetarako eskubidea sor dezaketzen zenbatekoak ordaintzen badira, kenkari honetan ezartzen diren gehieneko kenkari oinarriak batera zenbatuko dira zergaldi berean ordaindutako kopuruetarako.

III. kapitulua. Beste neurri batzuk

13. artikulua. Zerga zorren ezohiko zatikapena

Bat. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen zerga zorrak eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresen eta enpresa txikien zerga zorrak zatikatu ahal izango dira, berme prestaziorik eta berandutze interesen sortzapenik gabe, artikulu honetan xedatutakoaren arabera, baldin eta zerga betebeharrak egunean badituzte eta zorrak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra arteko aurkezteko eta borondatez ordaintzeko epea duten autolikidazioen ondorio badira.

Halaber, baldintza berberetan zatikatu ahalko dira jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresen eta enpresa txikien zerga zorrak, baldin eta, 2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra arteko borondatez ordaintzeko epea izanik, zerga administrazioak egindako likidazioen ondorio badira. Kasu horretan ere, derrigorrezkoa izango da zergadunek zerga betebeharrak egunean izatea.

Bi. Artikulu honetan aipatzen diren zergapekoek zerga zorra zenbateko bereko hileko 6 kuotatan zatikaturik ordaintzeko eskatu ahal izango dute. Zatikapen horren lehenengo epea 2021eko uztailean amaituko da.

Hiru. Ezohiko zatikapen hori aplikatu ahalko zaie jokoaren gaineko zergetatik eratorritako zerga zorrei.

Lau. Ezohiko zatikapen horren eskaera Arabako Foru Ogasunean egin behar da, autolikidazioa aurkezten den momentuan, eta horretarako ezarriko diren mekanismoen bitartez.

Zerga administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga zorren kasuan, eskaera aurkezteko azken eguna 2021eko ekainaren 7a izango da, eta aipatutako mekanismoen bitartez aurkeztu beharko da.

Bost. Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletaren Arautegi Orokorrean xedatutakoa ez zaie inolaz ere aplikatuko artikulu honetan araututako ezohiko zatikapenei.

Sei. Artikulu honetan aipatzen diren zatikapenen ebazpena COVID-19arekin lotutako zerga neurri berriak onesten dituen maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen den eskumen eremuaren arabera egingo da.

Horrez gain, COVID-19arekin lotutako zerga neurri berriak onesten dituen maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 7. artikuluko bigarren apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

14. artikulua. Osasun langileentzako doako talde aseguru

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira, hurrenez hurren, COVID-19aren ondoriozko gaixotasunagatiko eta heriotzagatiko kontingentziengatiko prestazioak, aseguru entitateek Aseguru eta Berraseguru Entitateen Espainiako Batasunaren bitartez sinatutako osasun langileen aldeko doako aseguru kolektibotik eratorriak, bai eta aseguru entitateek osasun langileen alde sinatzen duten eta antzeko ezaugarriak dituen beste edozein doako aseguru kolektibo ere.

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoak 2021eko zergaldirako izango ditu ondorioak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, eta 2021. urterako, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren kasuan.

15. artikulua. Lehentasunezko mezenasgo jarduerak

Bat. 2021erako lehentasunezko zatitako jarduerari edo programei honako zerga pizgarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Lehentasunezko zatitako jarduerari edo programetarako diru zenbatekoak gastu kengarri izango dira sozietateen gaineko zergaren oinarria eta establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria zehazterakoan; enpresaburuentzat eta profesionalentzat, berriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren arabidean.

b) Sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek kendu egin dezakete zehaztutako kuota likidotik lehentasunezko zatitako jardueretarako diru kopuruaren ehuneko 23, baita publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diru kopuruak ere.

Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 67. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio, arau horren 1. apartatuan ezarritako baterako muga gainditu gabe eta autolikidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat dela kontuan hartuz, foru arau horrek 128. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

c) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren pean gauzatzen badituzte jarduera ekonomikoak, kendu egin dezakete kuota osotik lehentasunezkoztat jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 23, publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diruak ere barne direla.

d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren gainerako subjektu pasiboek, aurreko c) letran sartuta ez badaude, kendu egin dezakete kuota osotik lehentasunezkoztat jotako jarduera edo programetarako diru kopuruaren ehuneko 35.

Aurreko c) eta d) letran ezarritako kenkariaren oinarria Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan adierazten diren mezenasgoaren kenkari guztien oinarrian sartuko da, foru arau horretan ezarritako mugen ondorioetarako.

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidearen uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoarekin osatuko da.

16. artikulua. Foru administratibotik, ELKARGItik eta Kreditu Ofizialeko Institututik mailegu gisa jasotako laguntzak

Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak 5. artikulua Hamar apartatuan eta 6. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko ez beste ezertarako, ez da jarduera ekonomikoa egiteko beharrezkoak ez diren aktibotzat hartuko COVID-19aren osasun krisiak enpresaburu eta profesionalengan eragindako ondorio negatiboak arintzeko Foru Administrazioak eta ELKARGIren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren abal lerroetan oinarritutako finantza erakundeek enpresaburu, profesional eta erakundeei mailegu gisa emandako laguntzen onuradunek eskuratutako zenbatekoen baliokidea den aktiboaren zatia, eta zati horri ez zaio aplikatuko aipatutako seigarren artikuluko seigarren apartatuan xedatutakoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa inolaz ere ez zaie aplikatuko higiezinetakako inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei, ez eta kapital aldakorreko inbertsio kapitaleko sozietateetako partaidetzei ere.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, zergadunak salbuespenerako eskubidea izan beharko du, aipatutako 6. artikulua Bat apartatuan edo Bi apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, azken apartatu honetako a) letratik d) letrara bitartean ezarritako betekizunak betetzen dituelako.

Artikulu honetan xedatutakoak 2020ko zergaldian bakarrik izango ditu ondorioak.

II. titulua. Zenbait zerga tratamendu malgutzeko neurriak

17. artikulua. Europako epe luzerako zenbait inbertsio funts zerga ondorioetarako karakterizatzen aparteko neurriak

Lehenengoa. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak.

Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatzeko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 10. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin loturik, luzatu egiten dira ondoko epe hauek:

Bat. Maileguen gehieneko gabezia aldia, esandako foru arauaren 10. artikuluko c) letran aipatzen dena, 2 urte izan daiteke haiek 2021ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean eman baldin badira.

Bi. Beste urtebetetz luzatzen da berrikuntza bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak maileguak emateko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, 10. artikulua azken paragrafoan adierazten dena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2021ean amaitzen bada.

Bigarrena. Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsak.

Beste urtebetetz luzatzen da jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak maileguak emateko edo partaidetzako entitateen kapitalerako edo funts berekietarako ekarpenak ordaintzeko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatzeko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 11. artikulua azken paragrafoan adierazten duena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2021ean amaitzen bada.

Hirugarrena. Ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak.

Beste urtebetetz luzatzen da ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsek hartzen dituzten funtsak aktibo finkoak eskuratzeko eta haiek alokatzeko erabil ditzaten dagoen urtebeteko gehieneko epea, Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatzeko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 12. artikuluko azken paragrafoan adierazten duena, haietako partaideek ekarpena ordaintzen dutenetik aurrera, baldin eta gehieneko epe hori 2021ean amaitzen bada.

18. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbait zerga tratamendu malgutzeko aparteko neurriak

Lehenengoa. Ohiko etxebizitza erosteko kontuetan sartutako diru kopuruak gauzatzeko epearen luzapena.

Kontuen epea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 87. artikulua 5. apartatuko b) letran adierazten duena, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada, sartutako diru kopuruak ohiko etxebizitzaren erosketan edo birgaitzean gauzatzeari ekiteko epea zazpi urte izango da, kontua ireki zen egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan adierazten den epe luzapenean etxebizitza kontuan sartutako diru kopuruek eskubidea emango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 87. artikuluan ezarritako kenkaria egiteko, betetzen baldin badira artikuluko horretan eta dagokion erregelamenduzko garapenean ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Eraikitzen ari den ohiko etxebizitza erosteko epearen luzapena.

Zergadunek zuzenean ordaintzen badituzte etxebizitza eraikitzeako obrak egiteak sortutako gastuak, edo konturako diru kopuruak ematen badizkiote haren sustatzaileari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 62. artikulua 1. apartatuko b) letran adierazten duen lau urteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada, epe hori bost urtera luzatuko da, inbertsioaren hasieratik aurrera.

Hirugarrena. Berrinbertitzeko epearen luzapena, ohiko etxebizitza eskualdatzen den kasuetan.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 49. artikulua ezartzen duen berrinbertitzeagatik salbuespenaz baliatzean, ohiko etxebizitza besterentzetik lortutako zenbatekoen berrinbertsioa gauzatzeko epea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 46. artikuluko 2. apartatua adierazten duena, hiru urte izango da.

Aurreko paragrafoan adierazi den epe luzapena aplikatuko da ohiko etxebizitza 2021ko urtarrilaren 1etik 2021ko abenduaren 31ra bitartean eskualdatzen den kasuetan edo ohiko etxebizitza bat 2021ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean erosi eta ondoren aurreko ohiko etxebizitza eskualdatzen denetan.

Laugarrena. Ohiko etxebizitza benetan eta etengabe okupatzeko epea.

Ohiko etxebizitza benetan eta etengabe okupatzeko hamabi hilabeteko epea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 61. artikuluko 2. apartatua adierazten duena, sei hilabetez luzatuko da epe hori 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

Hamabi hilabeteko epe hori, gehi aurreko paragrafoan adierazten den sei hilabeteko luzapena, erosketa egunetik edo obrak bukatzen diren egunetik aurrera kontatuko da.

Bosgarrena. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua, ondare irabazi salbuesi jakin batzuk direla eta.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 42. artikuluko b) eta c) letretan eta 49. artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatzeko ez beste ezertarako, zergadunak bere ohiko etxebizitza eskualdatzen duela iritziko da eraikina momentu horretan haren ohiko etxebizitza bada edo eskualdatze dataren aurreko hiru urteetako edozein egun arte izan bada.

Aurreko paragrafoan adierazten den epe luzapena eraikinak arau orokorren arabera 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean ohikoa izateari utzi dion kasuetan bakarrik aplikatuko da, eta betiere artikuluko honetako hirugarren apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritako aplikazio aldiaren barruan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 49. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzeko bada.

Seigarrena. Kenkaria langileek entitateak eratzegatik.

Langileek entitateak eratzegatik kenkaria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 90. quater artikuluan arautzen duena, aplikatzeko, eta entitateak 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eratu diren kasuetarako, ondoren adierazten diren epeak urtebetekoak izango dira, haien eraketatik aurrera.

a. Harpidetzaren xedea entitatearen eraketa dela irizteko epea, 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko a) letran ezarria.

b. Zergadunak entitatean langile bezala zerbitzu egiten hasteko epea, 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko e) letran ezarria.

c. 90. quater artikuluko horretako 2. apartatuko azken paragrafoan ezarritako epea, zeinean ez baita eskatzen langile guztiek 2. apartatu horretako g) letran ezarritako baldintza betetzea.

d. 90. quater artikuluko horretako 3. apartatuko azken paragrafoan ezarritako epea, zeinean ez baita eskatzen langile bezala zerbitzu egitea.

19. artikulua. Sozietateen gaineko zergan zenbait zerga tratamendu malgutzeko aparteko neurriak

Lehenengoa. Amortizatzeko askatasuna eta amortizazio bizkortua eraikitzen ari diren ibilgetuaren elementuetarako.

2021ean amaitzen bada obra gauzatzeko kontratu baten bidez enkargatu diren ibilgetuaren elementuak eskura ipintzeko hamabi hilabeteko epea, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 21. artikuluen 1. apartatuko b) letran eta 2. apartatuan adierazten duena, epe hori hamabi hilabetez luzatuko da.

Bigarrena. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.

Bat. Ondare elementua entregatzen edo eskura jartzen den dataren ondorengo hiru urteko berrinbertsio epeak, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 36. artikuluko 1. apartatuan eta 38. artikuluko 1. apartatuan adierazten dituenak, urtebetez luzatuko dira epe hura 2021ean amaitzen baldin bada.

Bi. Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 36. artikuluen 4. apartatuko bigarren paragrafoan adierazten duen hiru hilabeteko berrinbertsio epea sei hilabetez luzatuko da epe hura 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen baldin bada.

Hiru. Berrinbertsio epea bost urtera luzatzea, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 116. artikuluko 5. apartatuan adierazten duena, urtebete gehiagokoa izango da luzapen hura 2021ean amaitzen baldin bada.

Hirugarrena. Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia.

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 53.2 artikuluan adierazten duen hiru urteko gehieneko epea, ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba berezia hornituta dagoen diru kopuruak artikuluko hartan jasotzen diren helburuetako batera bideratzekoa, urtebetez luzatuko da 2021ean amaitzen baldin bada.

Zergaduna aurreko paragrafoan adierazi den gehieneko epearen luzapenez baliatzen baldin bada, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 53. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren arabera ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba bereziko saldoa erabili ezin duen epealdia, halaber, urtebetez luzatuko da.

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 53. artikuluko 2. apartatuko c) letran jasotzen dituen helburuetara bideratu nahi badu zergadunak ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba bereziko saldo osoa edo haren parte bat, zerga administrazioari komunikazio bat aurkeztu beharko dio, egutegi aldaketa eta horren arrazoiak jakinarazten dituenak.

Laugarrena. Ikerketa eta garapenerako proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

Ondoko erregelak berezi hauek ezartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 64. bis artikuluan xedatutakoa aplikatzeko:

1. 2021eko ekitaldian hasitako ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako proiektuak finantzatzeko kontratuak, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 64 bis artikuluko 2. apartatuan adierazten dituenak, delako proiektua gauzatzen hasi baino lehenago formalizatu beharko dira, baina orobat haiek gauzatzen hasi eta lehenengo bederatzi hilabeteetan formaliza daitezke baldin eta gauzatzen hasi baino lehenago eskatu bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 64 bis artikuluko 7. apartatuan aipatzen den txostena eta ez bada bukatu aitorpena egiteko borondatezko aldia.

2. Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 64 bis artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa gorabehera, foru arau horrek 64 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako urte anitzeko proiektuei, baldin eta finantzaketa kontratua sinatu aurretik hasi badira gauzatzen, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko lehen bederatzi hilabeteetan sinatu bada, eta gauzatzen hasi aurretik eskatu bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 64 bis artikuluko Zazpi apartatuan aipatutako txostena.

3. 2021ean abian dauden ikerketa eta garapenerako edo berrikuntza teknologikorako proiektuak finantzatzeko kontratuak aldatu ahal izango dira ordainketen eta gastu eta inbertsioen egutegia berregokitzeko. Aldaketa hori komunikazio osagarri baten bidez aurkeztu beharko zaio zerga administrazioari hura formalizatu eta hurrengo hiru hilabeteetan, eta betiere 2021eko abenduaren 31 baino lehen.

4. Salbuesenez, onargarria izango da ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikorako proiektu bat finantzatzeko kontratu formalizatuetan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko lehen bederatzi hilabeteetan egiten bada subrogazioa.

Bosgarrena. Birjartze epea, kenkari jakin batzuen aplikaziorako.

Kenkariaren gaia den inbertsioa gauzatzen den aktibo finkoak birjartzeko hiru hilabeteko epea, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 67. artikuluko 5. apartatuko bigarren paragrafoan adierazten duena, sei hilabetez luzatuko da baldin eta 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada epe hura.

Seigarrena. Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia.

Mozkinak nibelatzeko erreserba bereziari loturiko zerga oinarria kendutako zenbatekoekin gehitzeko bost urteko gehieneko epea, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 52. artikuluko 2. apartatuan aipatzen duena, zergaldi batez luzatuko da baldin 2021ean amaitzen bada epe hura.

Zergaduna aurreko paragrafoan adierazi den epe luzapenez baliatzen baldin bada, aipatutako 52. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera erreserba bereziko saldoa erabili ezin duen epealdia, halaber, zergaldi batez luzatuko da.

20. artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan zerga tratamendu jakin bat malgutzeko aparteko neurria

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren martxoaren 31ko 11/2013 Foru Arauak 43. artikuluaen Bat apartatuko c) letran aipatzen duen karga tasa aplikatzearen ondorioetarako, sei hilabetez luzatuko da c) letra horren 2. zenbakian jasotako baldintza betetzen dela egiaztatzeko agiriak aurkezteko hamabi hilabeteke epea, etxebizitza eskuratzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta epe hori 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

21. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkaria

1. Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluaen 2. apartatuko bosgarren paragrafoan xedatutako lan harremana azkentzen denetik aurrera langile kopuru bera berriz kontratatzeko bi hilabeteke epea beste lau hilabetez luzatuko da, baldin eta lan harremana 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean azkendu bada.

2. Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluaen 2. apartatuko seigarren paragrafoan jasotako hiru urteko epea zenbatzeko, enplegua sortzearen kenkaria aplikatzeari dagokionez, ez da kontuan hartuko 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia, eta paragrafo horretan jasotako baldintza betetzat joko da.

22. artikulua. Xedapen orokorra

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 17. artikulutik 21. artikulura bitartean xedatutakoa ez da aplikatuko 2020an onetsitako dagokion zerga premiazko araugintzako dekretuko xedapen baliokidean ezarritakoari jarraituz dagoeneko epea luzatu den kasuetan.

III. titulua. Balio erantsiaren gaineko zerga

23. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasun entzegei, inportazioei eta Europar Batasuneko barne erosketei aplikatzekoa

Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie, 2020ko azaroaren 1etik 2021eko apirilaren 30era arte, zerga premiazko araugintzako dekretu honen eranskinan aipatzen diren ondasun entzegei, inportazioei eta Europar Batasuneko barne erosketei, hartzaileak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluko hiru apartatuan aipatuta dauden zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak edo gizarte izaerako erakunde pribatuak direnean. Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira fakturan.

24. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko tasa aplikatzea maskaren entzegei, inportazioei eta Europar Batasuneko barne erosketei

2020ko azaroaren 19tik aurrerako eta 2021eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko tasa aplikatuko zaie erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entzegei, inportazioei eta erkidego barruko erosketei. Eragiketa horiek Sendagaien Prezioak aztertzen dituen Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Akordioan

aipatzen dira, zeinak jendurrean saltzeko gehienezko zenbatekoak berrikusten baititu, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bateginaren 94.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz (Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalako Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko azaroaren 13ko Ebazpenak argitaratua).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean xedapen orokor hau, salbu ondorioak sortzen hasteko egun jakin bat esleituta duten arauak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA

23. artikulua aitutzen dituen ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
1	Produktu sanitarioak	Zainketa intentsibo eta azpintentsiboetarako arnagailuak	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako aparatuak) Fluxu zatigailuak	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiako beste aparatu batzuk, oxigeno dendak barne	ex 9019 20 00
		Gorputzez kanpoko mintzaren bidezko oxigenazioa	ex 9019 20 00
2	Monitoreak	Parametro anitzeko monitoreak, bertsio eramangarriak barne	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak	– Kanpoko nutriziorako ponpa peristaltikoak – Medikamentuen infusio ponpak – Xurgatze ponpak	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak	ex 9018 90 50
4	Hodiak	Hodi endotrakealak	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak	ex 9019 20 00 ex 3917 21 10 ex 3917 39 00
5	Kaskoak	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko CPAP/NIV kaskoak	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV)	Aurpegi osoko maskarak eta aireztapen ez-inbaditzaileko oronasalak	ex 9019 20 00
7	Xurgatze sistemak/makinak	Xurgatze sistemak	ex 9019 20 00
		Xurgatze elektrikoko makinak	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak	Hezegailuak	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok	Laringoskopiaok	ex 9018 90 20

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
10	Hornidura mediko suntsikorrak	– Intubazio kitak	ex 9018 90
		– Guraize laparoskopikoak	
		Xiringak, orratzarekin edo orratzik gabe	ex 9018 31
		Orratz metaliko tubularrak eta sutuaretarako orratzak	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak, kanulak	ex 9018 39
		Sarbide baskularreko kitak	ex 9018 90 84
11	Monitorizazio estazioak Pazienteak monitorizatzeko aparatuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak	Zainketa intentsiboetarako monitorizazioko estazio zentralak	ex 9018 90 ex 9018 19
		Pultsu oximetroak	
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu eskaner eramangarria	Ultrasoinu eskaner eramangarria	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak	Elektrokardiografoak	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografia sistemak/eskanerrak	Ordenagailu bidezko tomografia sistemak	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak	– Ehunezko aurpegi maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanikoen gabeak, barnean direla ehuna ez den ehun materialarekin egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegi maskarak. – FFP2 eta FFP3 aurpegi maskarak	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituzten gas maskarak agente biologikoen aurka babesteko. Begien babesa edo aurpegiaren babesak dituzten maskarak ere baditu.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak	Plastikozko eskularruak	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak	4015 11 00
		Beste gomazko eskularru batzuk	ex 4015 19 00
		Plastikoz edo gomaz inpregnatutako edo estalitako galtzeta eskularruak	ex 6116 10
		Galtzetaz bestelako ehunezko eskularruak	ex 6216 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
17	Aurpegi babesak	– Erabili eta botatzeko eta berrerabiltzeko diren aurpegi babesgailuak – Plastikozko aurpegi babesgailuak (begiak baino gehiago babesten dutenak)	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak	Babes gaga handiak eta txikiak (googleak)	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90
19	Lan jantziak Mantal iragazgaitzak –hainbat mota, hainbat tamaina-. Erabilera kirurgiko/medikorako feltrozko edo ehundu gabeko oihalezko babes jantziak, baita inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak ere (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Goma bulkanizatuzko erabilera anitzeko arropa (eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak barne)	ex 4015 90 00
		Jantzeko arropak	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunarekin eginiko jantzeko arropak	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Galtzeta ehunarekin eginiko beste arropa batzuk	6114
		Erabilera kirurgiko/medikorako feltrozko edo ehundu gabeko oihalez eginiko jantzeko arropak, inpregnatuak zein inpregnatu gabek, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Barnean sartzen dira ehundu gabeko materialez eginiko jantziak («spun-bonded»)	ex 6210 10
		Babesteko beste jantzi batzuk, ehun kautxutatu edo inpregnatuekin, estaliek, gaineztatuekin edo ijeztuekin eginak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak)	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/babesak	Oinetakoen estalkiak/babesak	ex 3926 90 97 ex 4818 90 ex 6307 90 98
21	Txapelak	Mokodun txapelak	ex 6505 00 30
		Txapelak eta burua babesteko beste gailu batzuk eta edozein materialez eginiko sare ehunak	ex 6505 00 90
		Gainerako txapelak eta burua babesteko gailuak, forratuak/estutuak ala ez.	ex 6506

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
22	Termometroak	Zuzeneko irakurketarako likidozko termometroak	ex 9025 11 20
		Termometro digitalak edo termometro infragorriak bekokian neurtzeko.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa	Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak eta eskuak garbitzeko prestakinak (apain-mahaiko xaboa)	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
		Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak. Xaboa beste era batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboa ez direnak) – Kationikoak	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likidoan edo kreman, txikizka saltzeko prestatuak, xaboa izan ala ez.	ex 3401 30 00
24	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile banagailuak	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile banagailuak	ex 8479 89 97
25	Soluzio hidroalkoholikoa litrotan	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko edo gehiagoko alkohol etilikoaren bolumenarekin.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizata, edozein kontzentraziokoa	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, % 80 baino gutxiagoko alkohol etilikoaren bolumenarekin.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan Hidrogeno peroxidoa prestakin desinfektatzaileetara erantsia, gainazalak garbitzeko	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua ala ez	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa ontziratuta gabe	
		Eskuetarako desinfektatzailea Beste prestakin desinfektatzaile batzuk	ex 3808 94
27	Larrialdietako garraio gailuak	Pertsona desgaituak garraiatzea (gurpildun aulkiak)	ex 8713
		Pazienteak ospitale edo klinika barruan garraiatzeko esku oheak eta orgatxoak	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak	ARN erauzgailuak	9027 80

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
29	COVID-19rako proba kitak / proba diagnostikoetan erabiltzen diren tresnak eta aparatuak	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak – Erreakzio immunologikoetan oinarritutako diagnostiko erreaktiboak – Isipu ekipoa eta garraibide birala.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Polimerasaren kate erreakzioan oinarritutako diagnostiko erreaktiboak (PCR) azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan, in vitro diagnostikorako erabilitako tresnak	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipuak	Guata, gasa, bendak, kotoi zotzak eta antzeko gaiak	ex 3005 90 10 ex 3005 90 99
31	Kanpaina ospitaleak instalatzeko materiala	Ospitaleko oheak	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpin dendak	ex 6306 22 00 ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpin dendak	ex 3926 90 97
32	Botikak	– Remdesivir – Dexametasona	ex 2934 99 90 ex 2937 22 00 ex 3003 39 00 ex 3003 90 00 ex 3004 32 00 ex 3004 90 00
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoa)	1- propanola (alkohol propilikoa) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoa)	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak	ex 2909
36	Azido formikoa	Azido formikoa (eta gatz deribatua)	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salzilikoa	Azido salzilikoa eta gatz deribatua	ex 2918 21 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/Produktuaren deskribapena	NC Kodea
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603 partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak	Erabilera bakarreko oihalak, 5603 partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak egon ala ez	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijeztuak egon ala ez	ex 5603 11 10 a ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko gaiak, txikizka saltzeko ez direnak	Paperezko ohe estalkiak	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, higienerako edo farmaziarako	Laborategiko beirateria, higienerako edo farmaziarako, kalibratuak zein graduatuak egon ala ez.	ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, 0-15 L/min oxigenoa hornitzeko Thorpe hodi fluxumetroa.	Thorpe hodi fluxumetroak sarrera eta irteerako atakak ditu, erregulatzailer bat, balbula bat eta neurtzeko hodi konikotzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluxumetro arruntaren (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatuaren bertsioak, fluxu maila espezifikotarako egokiak	ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81
43	Arnasketako CO2 detektagailu kolorimetrikoa	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina Erabilera bakarrekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea Biribilkitan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea	ex 3701 10 00 ex 3702 10 00